

1. Zenbateko epea daukat jaiotzagatiko diru-laguntza eskatzeko? eta, zer inprimaki aurkeztu behar dut?

Jaiotzagatiko eskaeren kasuan, hiru hilabeteko gehieneko epean aurkeztu behar dira, jaiotzaren datatik hasita.

Hasierako "I" inprimaki bat aurkeztu behar da, beharrezkoa den dokumentazioarekin batera.

2. Zenbateko epea daukat adopzio edo tutoretzagatiko diru-laguntza eskatzeko? eta, zer inprimaki aurkeztu behar dut?

Adopzio edo tutoretzagatiko eskaeren kasuan, hiru hileko gehieneko epean aurkeztu behar da adopzioa, nazionala zein nazioartekoa, edo tutoretza dagokion erregistro zibilaren bulegoan (kotsulatuetakoak barne) eratzten denetik hasita.

Hasierako "I" inprimaki bat aurkeztu behar da, beharrezkoa den dokumentazioarekin batera.

3. Zenbateko epea daukat adopzio aurreko bizikidetzarako zaintzaren eskuordetzagatiko diru-laguntza? eskatzeko (Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legearen aurretik "adopzio-aurreko familia-harrera" deitzen zen) eta, zer inprimaki aurkeztu behar dut?

Adopzio aurreko bizikidetzarako zaintzaren eskuordetzagatiko eskabideen kasuan, eskabidea hiru hilabeteko gehieneko epean aurkeztu behar da, administrazio-ebazpena osatzen denetik edo laguntza eskatu duenari jakinarazten zaionetik kontaktzen hasita, edozein dela ere aipatu ebazpenak irmotasuna lortu zuen eguna.

Hasierako "I" inprimaki bat aurkeztu behar da, beharrezkoa den dokumentazioarekin batera.

4. Jaiotzaren ondorengo urteetan, badaukat laguntzaren bat jasotzeko eskubiderik?

Jaiotzaren ondorengo urteetan, honako kasu hauetan duzu laguntza jasotzeko eskubidea:

- Bigarren semearen edo alabaren kasuan, haurrak urte1 betetzen duen urte naturalean eta 2 urte betetzen dituenean.

- Hirugarren semearen edo alabaren eta ondorengo seme-alaben kasuan, 1, 2, 3, 4, 5, eta 6 urte betetzen dituzten urteetan.

5. Adopzioaren, tutoretzaren eta adopzio aurreko bizikidetzarako zaintzaren eskuordetzaren ondorengo urteetan, badut laguntzaren bat jasotzeko eskubiderik?

Adopzioaren, tutoretzaren eta adopzio aurreko bizikidetzarako zaintzaren eskuordetzaren ondorengo urteetan, laguntza jasotzeko eskubidea duzu kasu hauetan:

- Bigarren seme-alabak: bi urte, 18 urtera arteko mugarekin.

- Hirugarren eta hurrengo seme-alabak: sei urte, 18 urtera arteko mugarekin.

Ez du mantenu-laguntza jasotzeko eskubiderik emango semeak edo alabak 18 urte betetzen dituen urteak.

6. Jaiotzaren, adopzioaren edo adopzio aurreko bizikidetzarako zaintzaren eskuordetzaren ondorengo urteetan semeak edo alabak laguntza jasotzeko eskubidea ematen duenean, zenbateko epea daukat diru-laguntza jasotzeko eskabidea aurkezteko?, eta zer inprimaki aurkeztu behar dut?

Eskabideak jaiotzaren, adopzioaren edo adopzio aurreko bizikidetzarako zaintzaren ondoko urteetan badira, eskabideak aurkezteko epea urte natural osoa da; laguntza hori eskatzeko, "M" mantenu-inprimakia bete beharko da, eta behar den dokumentazioa aurkeztu beharko da inprimaki horrekin batera.

7. Diru-laguntza hainbat urtetan jasotzeko eskubidea dagoenean, nahitaezkoa al da eskabidea beti pertsona berak aurkeztea?

Ez da beharrezkoa eskabidea beti pertsona berak aurkeztea.

8. Bigarren semearen edo alabaren eta ondorengo seme-alaben kasuan, jaiotzetik zenbatzen hasita hiru hilabeteko epean urte-aldaketa gertatzen bada eta oraindik ez badut diru-laguntzarako eskabidea aurkeztu, behartuta nago jaiotzagatiko eskabidea aurkeztera eta horri buruzko ebazpena eman arte itxarotera lehenengo urtea betetzean dagokidan laguntza eskatzeko?

Kasu horretan ez da beharrezkoa itxarotea, aldi berean eskatu baitaitezke bi diru-laguntzak: jaiotzari, adopzioari tutoretzari edo adopzio aurreko bizikidetzarako zaintzari dagokiona eta lehen urteari dagokiona. Horretarako bi inprimakiak (I eta M) bete beharko dira, eta justifikazio-dokumentazio bakarra aurkeztu bi espedienteetarako.

9. Laguntzaren xede den haurrari % 33ko edo goragoko minusbaliotasuna aitortu badiote, badaukat laguntza bereziren bat jasotzeko eskubiderik?

Bai, % 33ko edo goragoko minusbaliotasuna aitortu izanak eman beharreko zenbatekoa bikoizteko eskubidea ematen du.

10. Eta minusbaliotasun hori nire beste seme-alabaren bati aitortu badiote, badaukat eskubiderik aipatutako bikoiztasun hori aitortu diezadaten?

Ez, zenbatekoen bikoiztasuna diru-laguntzarako eskubidea sortzen duen seme-alabarengatik aitortzen da; beraz, seme-alaba horrek minusbaliotasunik ez badu, ezin izango da eskubide hori baliatu.

Hala eta guztiz ere, familiako kide baten minusbaliotasunak hobetu ditzake laguntza jasotzeko baldintzak, familia-errenta estandarizatua aldatzen baitu.

11. Minusbaliotasuna diru-laguntzarako eskabidea aurkeztu ondoren aitortu bazaio, eska dezaket eskubide hori aitortzea nahiz eta dagoeneko diru-laguntza kobratuta eduki?

Minusbaliotasun-ziurtagiria jaiotza, adopzioa, tutoretza edo adopzio aurreko bizikidetzarako zaintza eratzen denetik zenbatzen hasita lau urteko epean aurkezten bada, aurretik aitortutako zenbatekoen bikoiztasuna aitortzeko eskubidea izango da.

Ziurtagiri hori lau urte igaro ostean aurkezten bada, ziurtagiria aurkezten deneko urteei dagozkien laguntzak soilik bikoiztuko dira.

12. Diru-laguntzaren zenbatekoa errenta-mailaren araberakoa den kasuetan, zer errendimendu ekonomiko hartuko dira kontuan diru-laguntza kalkulatzeko?

Kontuan hartuko da zerga-oinarri orokorren eta aurrezki-oinarrien batura, jaiotzaren, adopzioaren, tutoretzaren edo adopzio aurreko bizikidetzarako zaintzaren urtearen aurreko bi urteetako zergaldiari dagokiona.

Gainerako urteetarako, eskabidea aurkeztu eta aurreko bi urteetako izango da kontuan hartuko den zerga-ekitaldia.

13. Aita eta ama bizileku berean erroldatuta ez egon arren, bien diru-sarrerak hartuko al dira kontuan?

Bai, bien diru-sarrerak hartuko dira kontuan, salbu eta ebazpen judizial, hitzarmen arautzaile edo behar adinako baliozkotasun juridikoa duen dokumentu baten bidez egiaztatzen bada bi gurasoen artean ez dagoela inolako harremanik.

14. Errendimenduak lortu direla edo ez direla lortu inola ere egiaztatu ezin badut, ukatuko al zait diru-laguntza?

Ez. Laguntza erabakitzeko beharrezkoa den zerga-informazioa baliabide elektronikoen bidez lortzerik ez dagoen eta interesdunak informazio hori egiaztatzen ez duen kasuetan gutxieneko laguntza emango da, betiere gainerako baldintzak betetzen badira.

15. Jaiotzagatiko laguntzak aitortu behar dira PFEZan, edo salbuetsita daude?

Hiru lurralde historikoetan (Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia) egun onartuta dauden foru-arauek berariaz adierazten dute jaiotzagatiko diru-laguntzak zerga ordaintzetik salbuetsita daudela eta, beraz, ez direla sartu behar PFEZaren errenta-aitorpenean. Alabaina, arau horiek urte batetik bestera alda daitezkeenez, diru-laguntza jasotzen den ekitaldiari dagokion Foru Arauan ezarritakoari jarraituko zaio; izan ere, foru-aldundien eskumena da salbuespen hori ezartzea.

16. Zer seme-alaba zenbatzen dira familian laguntza oinarritzen duen semeak edo alabak ordenan betetzen duen lekua zehazteko?

Laguntza oinarritzen duen semeari edo alabari ordenan dagokion lekua zehazteko:

a) Semea edo alaba izango da familia-etxean bizi den eta ekonomikoki aitaren edo amaren mende dagoen 25 urtez azpiko pertsona oro, baldin eta eskatzaile edo ezkontidearekin edo izatezko bikotekidearekin seme-alabatasunezko harremana badu, norberarena zein adoptatua izan, edo haren tutoretzan edo adopzio aurreko bizikidetzarako zaintzaren eskuordetzako egoeran badago.

b) Mendetasun ekonomikoa dagoela ulertuko da semeak edo alabak urteko lanbide arteko gutxieneko soldata baino urteko errenta altuagorik ez badute (salbuetsitakoak sartu gabe).

Baldintza hori eskatzailearen zinpeko deklarazio baten bidez egiaztatzen da.

17. Haur bat atzerrian jaio delako Erregistro Zibilean inskribatuta ez badago, haur hori kontatzen da diru-laguntzaren espediente batean?

Familia-liburuan azaltzen ez denez, zer dokumentazio aurkeztu behar dut?

Bai, kontatzen da diru-laguntzaren espedientean, betiere eskatzaileak edo haren ezkontide edo bikotekideak zaintza eta jagoletza badu eta haurra helbide berean erroldatuta badago.

Kasu horretan, eskatzen den erroldatzeaz gain, aitatasuna edo amatasuna egiaztatzeko, adingabearen jaiotza-ziurtagiri literala aurkeztu beharko da.

18. Eskatzaile atzerritarra naiz eta seme-alabak ekarri ditut, familia-berrelkartzearen bidez, eska dezaket seme-alabengatiko laguntza seme-alaba horiek erroldatu eta nirekin bizitzen jarritakoan?

Kontuan izaten den familia-unitatea eskabideak aurkezteko epean dagoena da.

Mantenuagatiko laguntzetan epea urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean hasten da; beraz, urtarrilaren 1eko egoera hartu behar da kontuan. Data horretan haurrak ez badira eskatzailearekin bizi eta ez badaude eskatzailearen bizilekuan erroldatuta, urte horretan ez da laguntza jasotzeko eskubiderik izango.

19. Diru-laguntza kobratzeko, eman al dezaket haurraren edo nire bikotekidearen izenean dagoen kontu bat?

Aurkezten den kontua titular batena edo gehiagorena izan daiteke, baita titular horietako batek laguntzaren eskatzailea izan behar du nahitaez.

Ez da nahikoa diru-laguntzaren eskatzailea pertsona baimenduna izatea.

20. Zer da jatorrizko dokumentu baten kopia konpultsatua?

Jatorrizko dokumentuen eta horien kopien arteko erkatze bat, edukien berdintasuna konprobatzeko egiten dena. Horretarako, jatorrizko dokumentuarekin batera, horren kopia bat aurkeztu beharko du herritarrak.

Horrela, dokumentuak eta kopiak erkatuko ditu erregistroak, edukien berdintasuna egiaztatzeko. Jatorrizko dokumentua bueltatuko zaio interesdunari eta kopia gaineratuko diogu eskabideari, idazkiari edo komunikazioari, dagokion zigiluarekin edo konpultsaren egiaztapenarekin, hartzaileari helarazteko. Aipatutako zigiluan edo konpultsa-egiaztapenean adieraziko da zer egunetan eta zer organotan egin zen, bai eta kopia konpultsatua nork eman zuen ere.

21. - Zer da atzerriko agiri legeztatua?

Aurkeztu beharreko agiriren bat atzerriko administrazioaren batek igorritakoa izanez gero, bide diplomatikoan legeztatua egon beharko da, berau tartean dagoen autoritate bakoitzak agiriaren banakako legeztatzea egitean datza.

Agiria autoritate ez kontsular batek egin bada jatorrizko herrialdean, esku hartu beharko dute jatorrizko herrialdeko Kanpo Arazoetako Ministerioak eta Estatu horretako Espainiako ordezkariak diplomatikoak edo kontsularrak. Azkenik, dokumentua Espainiako Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioak legeztatu beharko du.

Dokumentua Espainian behar bezala egiaztatutako autoritate kontsular batek igorritakoa bada, legeztatzean soilik Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioaren legeztatze sailak parte hartuko du.

Atzerrian dauden Espainiako Kotsuletxe edo Enbaxadek legeztatutako atzerriko dokumentuek segurtasuneko etiketa gardena badaramate, ez dute Espainiako Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioak legeztatu beharrik.

22. - Atzerriko agiriak itzuli egin behar al dira?

Bai. Atzerriko hizkuntzan igorritako agiriak, nahitaez itzuliak izan beharko dira ofizialki euskarara edo gaztelaniara. Berdin-berdin, itzulitako agiri hauek forman legeztatuak izan beharko dira. Zinpeko itzultzaileak igorritako itzulpenek ez dute Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioaren legeztapenik behar.

23. Guraso izan diren adingabeek eska ditzakete seme-alaben jaiotzagatiko diru-laguntzak? edo adingabe horien gurasoek, tutoreek edo legezko ordezkariak eskatu behar dituzte?

Bai, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 3. artikulua, eskabidea zuzentzeari eta hobetzeari buruzkoak, hau xedatzen du:

Lege honetan aurreikusitako ondorioetarako, administrazio publikoen aurrean jarduteko gaitasuna izango dute:

b) Adingabeek, beren eskubideez baliatzeko eta interesen alde egiteko, ordenamendu juridikoaren arabera hori guraso-ahala, tutoretza edo kuradoretza duen pertsona gabe egin dezaketen kasuetan. Salbuespen da adingabe ezgaituen kasua, ezintasunaren neurria eragozpena bada kasuan kasuko eskubideez baliatzeko edo interesen alde egiteko